

IRABAZI-ITURRIAK

Egitasmo bat aurrera eramatean, irabazi-iturriak beti izango dira funtsezko helburua. Hau guztia burutzea erabat konplexua izan daiteken arren, proiektua aurrera atera ondoren, diru-iturriak iritsiko dira. Beraz, azter dezagun Donostiako hondartzaren irabazi-iturriak zeintzuk eta zer motatakoak izango diren.

Hasiera batean, gure proiektuak bi diru-iturri nagusi izango lituzke: bildutako hondakinak San Marko Mankomunitateari salduz lortuko dugun dirua, eta Donostiako Udalaren edo beste gobernu-erakunde batzuen eskutik egindako diru-laguntzak.

Alde batetik, diru-iturrietako bat Donostiako hondartzetan bildutako hondakinen salmenta bidez lortuko genukeen dirua izango litzateke. Honen bidez jasoko dugun irabaziak ez dira asko izango, kontuan hartuta kilo bat plastiko 5€-tan saltzen dela eta bidrioak eta kartoiak 1,5€-tan saltzen dela kiloak. Beraz arduera honek gure diru-sarreraren %5 besterik ez da izango. Hala ere, jasoko genituzkeen hondakinen kopurua aldatu egingo litzateke astero; beraz, jasotako dirua eta horrek portzentaje osoan izango lukeen eragina aldakorra izango litzateke.

Bestalde, gure bigarren diru-iturria, eta nagusiena, Donostiako Udalaren diru-laguntzak izango lirateke. Gure proiektua garatu ahal izateko, laguntza horiek 2.300 eta 2.500 euro artekoak izateko adostasunera iritsiko ginbateke, beraz, gehienez, gure diru-sarreraren %85 izango litzateke.

Azkenik, kontuan izan behar dugu, gure proiektua martxan jartzeko hasierako 1500€-ko inbertsio bat beharko dugula. Inbertsio hau egin ahal izateko finantziarioa gure artean jarriko dugu, gutako bakoitzak 300€ inbertituko baititu modu ekitatiboan.

Laburbilduz, hauek izango lirateke hasiera baterako geure irabazi-iturriak. Produktu material bat ez denez, irabaziak finkaturik gabe daudela esan genezake hasiera batean, baina hasten garen heinean dena argi geldituko da, ziur, egitasmoa aurrera eramatean denak zentzua izango baitu.

Irabazi ekonomikoez gain, gure proiektuari esker, pertsona askori, hondakinak sortu ditzazken arazoetaz kontzientziatzea lortuko dugu, eta gure ingurumena zaintzearen garrantziaz. Honako hau da benetan guretzat irabazia, hau da, irabazi-soziala da guretzat garrantzitsuena kasu honetan, gizakiak ohartu behar baikara esku artean ditugun arazoez, eta hau lortuz gero, egitasmoak izugarritzko arrakasta izan duela irudituko zaigu. Hondartzak garbi mantentzea funtsezkoa da ingurunean bizi direnen osasuna bermatzeko, eta hau lortzen dugun momentutik gure proiektua hainbat esparrutan benetan lagungarria

IRABAZIAK (hilabetero)	2.800€
GASTUAK (hilabetero)	902,47€
GUZTIRA:	+1.897,53€



Datuak kontuan izanik, ikus dezakegu gure proiektuaren emaitza positiboa dela, hau da, irabazi behar dugun diru kantitatea gastuena baino handiagoa izango da. Kontuan izan behar dugu taula honetan txertatutako balioak bigarren hilabetetik aurrerako aurreikuspen bat direla, izan ere, lehen hilabetean gastu batzuei gehiago egin behar zaie aurre, web-gunearen sorrerari adibidez.